



**Nik, JUANA GOROSTIZA FERNANDEZ DE VILLARANek, BIZKAIKO GORLIZKO ELIZATEKO UDALEKO IDAZKARIAK,**

**EGIAZTATZEN DOT: Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko ekainaren 6an egindako ohiko batzaraldian hitzez hitz erabaki hau hartu ebala:**

### **OBRA eta ZERBITZUEN ATALA**

#### **1.- 2011ko UDALDIRAKO ZERBITZUEN ESLEIPENA**

Ikusi da balorazio-erizpide bakarrez esleitzeko eta jardunbide irekiz kontratatzeko espedientea **izozkiak, gozokiak, freskagarriak eta alkohol bako edariak saltzeko hiru (3) saltoki, taberna-txosna bi (2) eta barkiluak eta antzekoak saltzeko saltoki ibiltari bat (1) jartzeko lur-sailaren berariazko erabilera egiteko.**

#### **AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** Alkatetzak nabaritu egin dau premia egon dala balorazio-erizpide bakarrez esleitzeko **izozkiak, gozokiak, freskagarriak eta alkohol bako edariak saltzeko hiru (3) saltoki, taberna-txosna bi (2) eta barkiluak eta antzekoak saltzeko saltoki ibiltari bat (1) jartzeko lur-sailaren berariazko erabilera egiteko.**

**BIGARRENA:-** Kontratuaren izaera dala-eta, egokitzen joan jardunbiderik egokiena zala jardunbide irekiz egitea.

**HIRUGARRENA.-** Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko apirilaren 27an egindako batzaraldian onetsi egin zuen espedienteari hasiera emotea esaneko kontratazioa egiteko, eta proposatutako kontratazioaren premia eta egokitasuna arrazoitu egin zuen. Halaber, onetsi egin zuen baita kontratua esleitzeko arau izango diren Administrazio baldintza berezien orria eta agindu teknikoen orria.

**LAUGARRENA:** Eskaintzak aurkezteko epealdian espedientean dagozan proposamenak aurkeztu egin ziran.

**BOSGARRENA.-** Kontratazio-mahaiak 2011ko maiatzaren 20an eta 24an egindako batzaraldietan aurkeztutako proposamen guztiak



bideratzea onetsi egin zituen eta 1. eta 2. gutun-azalak zabaldu egin zituen. Kontratazio-Mahaiak proposatu egin zituen esleipena egitea ondoren zehazten diren eskaintzaileei, ondorengo baldintzen arabera:

**4. zenbakidun TABERNA-TXOSNA.**

NURIA DIEZ ARGOTE: 9.601,00 euro.

**5 zenbakidun TABERNA-TXOSNA.**

NURIA DIEZ ARGOTE: 9.601,00 euro.

**1. zenbakidun IZOZKI-SALTOKIA**

ESTHER ORTIZ LOPEZ: 9.101,00 euro.

**2. zenbakidun IZOZKI-SALTOKIA**

ESTHER ORTIZ LOPEZ: 9.101,00 euro.

**3. zenbakidun IZOZKI-SALTOKIA**

ESTHER ORTIZ LOPEZ: 9.101,00 euro.

**SEIGARRENA:** 2011ko maiatzaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki dau **izozkiak, gozokiak, freskagarriak eta alkohol bako edariak saltzeko hiru (3) saltoki, taberna-txosna bi (2) eta barkiluak eta antzekoak saltzeko saltoki ibiltari bat (1) jartzeko, lur-sailaren berariazko erabilera egiteko** eskaintzarik onuragarrienak aurkeztu eben eskaintzaileei eskatzea zerga betebeharrak eta gizarte-segurantzarekin betebeharrei buruzko ziurtagiriak eguneratuta aurkezteko eta behin-betiko fidantza jartzeko.

**ZAZPIGARRENA.** Esleipendunak 2011ko maiatzaren 27an jarri dabe behin-betiko fidantza eta aurkeztu dabe eskatutako ziurtagiriak.

Aurrekoa kontuan hartuta Tokiko Gobernu Batzarrari proposatzen jako, herri-alorreko kontratuei buruzko 30/2007 legeko bigarren xedapen gehigarrian eta bat datorren gainontzeko legeen arabera, **ERABAKI hau hartzea:**

**LEHENENGOA:** Izozkiak, gozokiak, freskagarriak eta alkohol bako edariak saltzeko hiru (3) saltoki, taberna-txosna bi (2) eta barkiluak eta antzekoak saltzeko saltoki ibiltari bat (1) jartzeko, lur-sailaren berariazko



**erabilera egiteko** esleitzea Ondoren zehazten diren eskaintzaileei eta ondorengo baldintzen arabera:

**4. zenbakidun TABERNA-TXOSNA. NURIA DIEZ ARGOTeri.** ,zenbatekoa 9.601,00 €/urteko eta itsasertzen sailak jarritako tasa, zenbatekoa, 1.142,19 euro/urteko, hiru (3) urtez. epealdi hori , urtaroaren arabera izango da, hau da, baimena hasiko da Euskal Herriko Itsasertzen mugaren baimena jasotzen danean eta eten egingo da 2011n, urriaren 16an, eta hurrengo urteetan egun berean. amaitu egingo da 2013. urtean , ustiapena zein erabilera.

**5 zenbakidun TABERNA-TXOSNA. NURIA DIEZ ARGOTeri.** ,zenbatekoa 9.601,00 €/urteko eta itsasertzen sailak jarritako tasa, zenbatekoa, 1.142,19 euro/urteko, eta esleipena amaitu egingo da 2011n, urriaren 16an.

**1. zenbakidun IZOZKI-SALTOKIA. ESTHER ORTIZ LOPEZ:** 9.101,00 euro. /urteko eta itsasertzen sailak jarritako tasa, zenbatekoa, 1.142,19 euro/urteko, hiru (3) urtez. epealdi hori , urtaroaren arabera izango da, hau da, baimena hasiko da Euskal Herriko Itsasertzen mugaren baimena jasotzen danean eta eten egingo da 2011n, urriaren 16an, eta hurrengo urteetan egun berean amaitu egingo da 2013. urtean , ustiapena zein erabilera.

**2. zenbakidun IZOZKI-SALTOKIA. ESTHER ORTIZ LOPEZ:** 9.101,00 euro. /urteko eta itsasertzen sailak jarritako tasa, zenbatekoa, 1.142,19 euro/urteko, hiru (3) urtez. epealdi hori , urtaroaren arabera izango da, hau da, baimena hasiko da Euskal Herriko Itsasertzen mugaren baimena jasotzen danean eta eten egingo da 2011n, urriaren 16an, eta hurrengo urteetan egun berean amaitu egingo da 2013. urtean , ustiapena zein erabilera.

**3. zenbakidun IZOZKI-SALTOKIA. ESTHER ORTIZ LOPEZ:** 9.101,00 euro. /urteko eta itsasertzen sailak jarritako tasa, zenbatekoa, 1.142,19 euro/urteko, hiru (3) urtez. epealdi hori , urtaroaren arabera izango da, hau da, baimena hasiko da Euskal Herriko Itsasertzen mugaren baimena jasotzen danean eta eten egingo da 2011n, urriaren 16an, eta hurrengo urteetan egun berean amaitu egingo da 2013. urtean , ustiapena zein erabilera.

**BIGARRENA:** Saltoki ibiltaria esleitzeko espedientea, 6. kokapenari buruzkoa, hutsik ixtea ez dalako aurkeztu proposamenik.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen barri emotea esleipendunei eta deitzea Gorlizko Udaletxera joan daitezkan dagokiezan kontratuak sinatu dagiezan 2011ko ekainaren 10ean, goizeko 10etan eta kontratua sinatzeko ekitaldira eroan beharko dabez esleipenei dagokiezan diru-sarreraren egiaztagiriak.



**LAUGARRENA.-** Erabaki honen barri emotea ere esleipendun izan ez diren eskaintzaileei.

**BOSGARRENA.-** Esleipenaren emaitza argitaratzea Kontratatzailearen Profilean.

**Erasota geratu daiten eta ondorioak sortu daizan ziurtagiri hau emon dot Alkateak aginduta eta bere onspenaz, Gorlizen , bi mila eta hamaikako ekainaren zortzian**

**O.E.  
ALKATEA**